



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 24a

92. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Legegintzaldiaren lehen urteko kudeaketari buruzkoa. Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (2 or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu nafar herritarrek EITB hartzeko eskubidea dutela. Eledunen Batzarrak onetsia (2 or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen baitu bisa humanitarioa eman diezaien Lamis-i eta haren familiari, Nafarroara heldu ahal izan daitezen. Eledunen Batzarrak onetsia (3 or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatu egiten baitu Espainiako Gobernuaren eta Europar Batasunaren jarrera, eta bi horiek premiatzen baititu migratzaileen eta errefuxiatuen sarrera oztopatzeari utz diezaioten eta horien etorrera azkartu dezaten. Eledunen Batzarrak onetsia (3 or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Bosch enpresak bere egoitza soziala aldatzeko arrazoiei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (4 or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroarentzat onuragarria dela jotzen den Bosch enpresaren erabakiarengatik esportazioak drastikoki gutxitu izana. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (5 or.).
- Galdera, jakitekoa ea Bosch enpresaren egoitza fiskala aldatu izanak eraginik ez ote duen Nafarroako Foru Komunitatean bildutako zergaren batean. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (5 or.).
- Galdera, Nafarroaren iparraldean lanbide heziketako ikastetxe berri bat jartzeko aurreikuspenari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (6 or.).
- Galdera, administrari laguntzaileen eta administrariaren lekualdatze-lehiaketa deitzeko aurreikuspenari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (7 or.).
- Galdera, lehengoratuko diren ratioak gainditu arren ikasgelarik bikoiztu ezin izanen duten ikastetxeei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (7 or.).
- Galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzan ratioak lehengoratzearen ondorioz ikasgelak bikoiztuko dituzten ikastetxeei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (8 or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Legegintzaldiaren lehen urteko kudeaketari buruzkoa.

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko jabeldura, Legegintzaldiaren lehen urteko kudeaketari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko eledun Ana Belrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Heldu den uztailaren 22an urtebete izanen da Nafarroako Gobernuko oraingo lehendakariak bere kargua hartu zuenetik; hori dela-eta, gure ustez une aproposa da legegintzaldiaren lehen urte honen balantzea egiteko.

Nafarroako Gobernuko lehendakariari egindako jabeldura, bere gobernualdiaren lehen urte honen balantzea egiteko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Eleduna: Ana Belrán Villalba

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu nafar herritarrek EITB hartzeko eskubidea dutela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berresten du nafar herritarrek EITB hartzeko eskubidea dutela, dagoen eskaria gogoan izanik eta oinarri harturik irailaren 19ko 805/2014 Errege Dekretuko xedapen gehigarriak aurreikusten duen aukera, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorreko 40.4 artikuluan ezarritakoa eta Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak, Parlamentuak berak

nahiz hainbat toki entitatek adierazitako borondateen bat-etortzea.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Industria, Energia eta Turismo Ministerioak Nafarroari eman diezazkion estaldura autonomiko bigarren multiple digital baten erreserba eta esleipena; edo, halakorik ezean, seira handitu dezan Lurreko telebista digitalaren Plan Tekniko Nazionalak Nafarroako Foru Komunitateari esleitutako multiple digital autonomikoa osatzen duten telebista-kanalen kopurua; xede bakar batekin bi kasuetan ere, zeina baita Nafarroan eragindun egitea EITBren ikus-entzunezko komunikazio-

zerbitzuen emisioa, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorreko 40.4 artikuluan ezarritakoaren babesean?"

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen baitu bisa humanitarioa eman diezaien Lamis-i eta haren familiari, Nafarroara heldu ahal izan daitezen.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak:

1. Gobernu zentrala premiatzen du bisa humanitarioa eman diezaien Lamis-i eta haren familiari, Nafarroara heldu ahal izan daitezen tratamendua jasotzeko.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzen dio behar diren bitarteko guztiak jar ditzan Lamis-ek behar

den tratamendua jaso ahal izateko eta haren familiariak gure erkidegoan bizitza berri bat hasi ahal izateko.

3. Errefuxiatu guztienganako bere konpromisoa berresten du eta Espainiako Gobernuak premiatzen du Europara iritsitako asilo-eskatzzaileen eta errefuxiatuen lekualdatze-prozesua azkartu dezan, hartutako konpromisoei jarraikiz."

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatu egiten baitu Espainiako Gobernuaren eta Europar Batasunaren jarrera, eta bi horiek premiatzen baititu migratzaileen eta errefuxiatuen sarrera oztopatzeari utz diezaioten eta horien etorrera azkartu dezaten.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak salatu egiten du Espainiako Gobernuaren eta Europar Batasunaren jarrera, eta bi horiek premiatzen ditu migratzaileen eta errefuxiatuen sarrera oztopatzeari utz diezaioten eta horien etorrera azkartu dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du errefuxiatuen egunarekin, zeina gaur, ekainak 20, ospatzen baita, eta bere atxikimendua adierazten die zenbait gizarte-entitatek antolatutako ekimeinei, eta dei egiten du Iruñean gaur eginen den manifestaziora joateko."

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Bosch enpresak bere egoitza soziala aldatzeko arrazoiei buruzkoa.*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Bosch enpresak bere egoitza soziala aldatzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak 2016ko ekainaren 1eko agerraldian bere lehendakariorde Manu Ayerdiren bidez adierazi zuen Nafarroan esportazioak gutxitu izana datu estatistiko hutsa dela, eta zehaztu zuen "2015eko ekainetik uztaile bitarte produktu horren esportazioetan gertatutako aldaketa" denboran bat datorrela " Bosch etxetresna elektriko enpresak bere egoitza soziala Aragoira eramatearekin".

Nafarroako Gobernuaren ustez, enpresa horrek zer arrazoi izan ditu bere egoitza soziala aldatzea erabakitzeko?

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, jakitekoa ea Nafarroarentzat onuragarria dela jotzen den Bosch enpresaren erabakiarengatik esportazioak drastikoki gutxitu izana.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Nafarroarentzat onuragarria dela jotzen den Bosch enpresaren erabakiarengatik esportazioak drastikoki gutxitu izana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak 2016ko ekainaren 1eko agerraldian bere lehendakariorde Manu Ayerdi bidez adierazi zuen Nafarroan esportazioak gutxitu izana datu estatistiko hutsa dela, eta zehaztu zuen "2015eko ekainetik uztaile bitarte produktu horren esportazioetan gertatutako aldaketa" denboran bat datorrela "Bosch etxetresna elektrikoen enpresak bere egoitza soziala Aragoira eramatearekin".

Nafarroako Gobernuaren ustez, Nafarroarentzat eta Nafarroaren enpresa-irudiarentzat onuragarria al da enpresa horren erabakiarengatik esportazioen portzentajea drastikoki gutxitu izana?

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, jakitekoa ea Bosch enpresaren egoitza fiskala aldatu izanak eraginik ez ote duen Nafarroako Foru Komunitatean bildutako zergaren batean.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Bosch enpresaren egoitza fiskala aldatu izanak eraginik ez ote duen Nafarroako Foru Komunitatean bildutako zergaren batean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak 2016ko ekainaren 1eko agerraldian bere lehendakariorde Manu Ayerdiren bidez adierazi zuen Nafarroan esportazioak gutxitu izana datu estatistiko hutsa dela, eta zehaztu zuen “2015eko ekainetik uztaile bitarte produktu horren esportazioetan gertatutako aldaketa” denboran bat datorrela “ Bosch etxetresna elektrikoen enpresak bere egoitza soziala Aragoira eramatea-rekin.”

Nafarroako Gobernuaren ustez, enpresa horren egoitza fiskala aldatzeak ez dauka eraginik

Nafarroako Foru Komunitatean biltzen diren zergeta-tako bakarrean ere?

Nafarroako Gobernuaren ustez inpaktu hori gertatu gertatzen baldin bada –inpaktua positiboa nahiz negatiboa izan–, arren eskatzen dugu dugu zehaztu dezan zeri eragiten dion: PFEZari (langile-lekualdatzea), sozietateen gaineko zergari ala BEZari.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Nafarroaren iparraldean lanbide heziketako ikastetxe berri bat jartzeko aurreikuspenari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroaren iparraldean lanbide heziketako ikastetxe berri bat jartzeko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia

dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Zer aurreikuspen dago Nafarroaren iparraldean lanbide heziketako ikastetxe berri bat jartzeari dagokionez? Instalazio berriak ala egungoen birmoldaketak?

– Ikastetxe bakarra, daudenak bilduko dituen, ala ez?

– Zer epe uste duzue direla egokienak?

– Zer espezialitate uste duzue direla ezartzeko egokienak?

Corellan, 2016ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, administrari laguntzaileen eta administrarien lekualdatze-lehiaketa deitzeko aurreikuspenari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, administrari laguntzaileen eta administrarien lekualdatze-lehiaketa deitzeko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia

dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Gobernuak ba al du administrari laguntzaileen eta administrarien lekualdatze-lehiaketarik deitzeko asmorik?

– Probarik egingen al da administrari laguntzaileen eta administrarien kontratazio-zerrendetarako?

– Kontratazio-zerrendetarako probak egin aurretik lekualdatze-lehiaketa egiteko asmoa al du Gobernuak?

– Zer arrazoi egon da negoziazio-mahaiak ez deitzeko, zenbait sindikatuk salatu duten moduan?

Corellan, 2016ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, lehengoratuko diren ratioak gainditu arren ikasgelarik bikoiztu ezin izanen duten ikastetxeei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, lehengoratuko diren ratioak gainditu arren ikasgelarik bikoiztu ezin izanen duten ikastetxeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Gobernuak ekainaren 15ean egindako bilkura osteko prentsaurrekoan, Hezkuntzako kontseilariak adierazi zuen, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasgeletako ratioak lehengoratzeari dagokionez, zenbait ikastetxe ez daudela gaur egun "ratio horiek lehengoratzeko moduan".

Orobat adierazi zuen ikastetxe horiek "laguntza-irakasleen bidezko ordu-konpentsazioak" edu-

kiko dituztela, "ikasgela-kopurua handitzeko ezintasuna samurtzeko".

Hori guztia dela-eta, honako galdera hauei idatziz erantzutea nahi dugu:

– Departamentuaren arabera, zer ikastetxek ezin izanen dute ikasgelarik bikoiztu eta gaindituko dituzte, hartara, lehengoratuak diren ratioak? Zehaztu bitez mailak eta ikasgela bakoitzeko ikasle-kopuruaren aurreikuspenak.

– Zer konpentsazio ezarriko dira?

Ezarriko diren laguntza-irakasleen ordu-kompentsazioak irizpide berarekin ezarriko al dira ikastetxe horietan guztietan? Zehaztu bitez ezarriko diren neurriak, ikastetxeka eta mailaka.

Corellan, 2016ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzan ratioak lehengoratzearen ondorioz ikasgelak bikoiztuko dituzten ikastetxeei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzan ratioak lehengoratzearen ondorioz ikasgelak bikoiztuko dituzten ikastetxeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia

dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Gobernuak ekainaren 15ean eginiko bilkuraren osteko prentsaurrekoan, Hezkuntzako kontseilariak adierazi zuen, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasgeletako ratioak lehengoratzeari dagokionez, gaur egun zenbait ikastetxe ez daudela "ratio horiek lehengoratze moduan".

Hori guztia dela-eta, honako galdera honi idatziz erantzutea nahi dugu:

Zer ikastetxek bikoiztuko dituzte ikasgelak, Haur eta Lehen Hezkuntzako ratioak lehengoratzearen ondorioz?

Zehaztu bitez mailak eta ikasgela bakoitzeko ikasle-kopuruari buruzko aurreikuspenak.

Corellan, 2016ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera